



HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2022ko URRIAREN 7a

| | | |
|-----------------------|----|--|
| Kontseilarien kopurua | 15 | Bi mila eta hogeita bigarren urtean, urriaren zazpian, arratseko sei eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, Jaun Auzapezak deiturik. Dei hori 2022ko urriaren 3an afixatua izan zen eta 2022ko urriaren 3an posta elektronikoz igorria. Auzapeza bilkuraburu zen. |
| Hor zirenak | 11 | |
| Bozkatzaileak | 11 | |
| | | |

Hor zirenak: BIBES Jean Paul jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOUSQUES Bernadette anderea, MOCHO Frantxoa jauna eta CURUTCHARRY Antton jauna

Hor ez zirenak baina boterea emana zutenak: DUPUY Maddalen andereak ahalordea BIBES Jean Paul jaunari emana zakon, ARANGOITS Isabelle andereak CURUTCHARRY Antton jaunari emana zakon, OLÇOMENDY Betti jaunak MOCHO Frantxoa jaunari emana zakon, BIDART Betti jaunak COSCARAT Jean Michel jaunari emana zakon.

Bilkurako idazkaria: BIBES Jean Paul

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

- Kanpineko aitzinkontua aldatzen duen erabakia
- Kamioi baten erostearen onartzea
- Buxet nagusia aldatzen duen erabakia
- Urdozako kaperaren jabetza-ezaren ziurtagiria
- Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuarekilako partaidetza hitzarmenaren izenpetzea, argiteria publikoaren ustiatze zerbitzuan diruz parte hartzeari buruzkoa
- Galdera orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2022ko buruilaren 2ko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2022-54 DELIBEROA: KANPINAREN AURREKONTUA ALDATZEKO ERABAKIA -

7.1 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako aurrekontu nagusiak aurrerakin bat egin zakola kanpinaren aurrekontuari.

Auzapezak zehaztu du aurrerakin hori urtean itzulgarria zela eta, beraz, haren itzultzea proposatu du.

Beraz, Jaun Auzapezak proposatu du kredituak ondotik zehaztua den bezala berriz esleitzea:

INBESTIZAMENDUA

| | |
|---------|----------|
| GASTUAK | SARTZEAK |
|---------|----------|

| Artikulu- operazioa | Zenbatekoa | Artikulu- operazioa | Zenbatekoa |
|---------------------|-----------------|-------------------------------------|-----------------|
| 1687- Bertze zorrak | 4 000.00 | 021-Funtzionamendu sailera isurtzea | 4 000.00 |
| | 4 000.00 | | 4 000.00 |

FUNTZIONAMENDUA

| GASTUAK | | SARTZEAK | |
|--------------------------------------|-----------------|--------------------------|-----------------|
| Artikulu- operazioa | Zenbatekoa | Artikulu- operazioa | Zenbatekoa |
| 023- Inbestizamendu sailera isurtzea | 4 000.00 | 7083- Hainbat alokatze | 4 000.00 |
| | | | |
| GASTUAK OROTARAT | 8 000.00 | SARTZEAK OROTARAT | 8 000.00 |

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **ONARTU DU** gorago aipatu kredituen berriz esleitzea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Parte hartu duten kideen kopurua: 11
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOA(K): /

2- 2022-55 DELIBEROA: KAMIOI BATEN EROSTEAREN ONARTZEA - 1.4 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako zerbitzu teknikoek kamioi bat ordezkatu behar dela. Jaun Auzapezak zehaztu du eskaintza bat baino gehiago errezibituak izan direla eta zenbatekoak irakurri ditu.

- A.V.I enpresak bigarren eskuko DAF kamioia eskaintzen du, 49 000 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- A.V.I enpresak bigarren eskuko RENAULT kamioia eskaintzen du, 62 000 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- A.V.I enpresak bigarren eskuko IVECO kamioia eskaintzen du, 50 000 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- DARRIGRAND SAS enpresak bigarren eskuko kamioia eskaintzen du, 43 000 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- DARRIGRAND SASek bigarren eskuko eskuko kamioia eskaintzen du, 48 500 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- AG VEHICULES enpresak FUSO kamioi berria eskaintzen du, 59 500 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- FUSO GROUPE CLIM BAYONNE enpresak FUSO kamioi berria eskaintzen du, 63 670 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **ONARTU DU** FUSO GROUPE CLIM BAYONNEk egin eskaintza.

(bigarren eskukoek prezio altua ikusirik, Fuso Canter berri baten erosteko erabakia hartu du, aitzinekoaren hartzea negoziatuz.

2022 modeloa hautatu da, 2021ekoaren ordez, zeren Euro v normetan baita)

- **ERABAKI DU** FUSO kamioia erostea, 63 670.00 €-ko zenbatekoan, zergarik gabe.
- **ZEHAZTU DU** GROUPE CLIM BAYONNEk aitzineko kamioia hartuko duela, 1 500 €-tan, zergak barne

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Parte hartu duten kideen kopurua: 11
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOA(K): /

2022ko urriaren 7ko bilduma

3 - 2022-56 DELIBEROA: BUXET NAGUSIA ALDATZEKO ERABAKIA - 7.1 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dako zerbitzu teknikoaren kamioi bat ordezkatu behar dela. Horrendako, buxeta aldatu behar da.

Beraz, Jaun Auzapezak proposatu du kredituak ondotik zehaztua den bezala berriz esleitzea:

INBESTIZAMENDUA

| GASTUAK | | SARTZEAK | |
|-------------------------------|-----------------|--------------------------|-----------------|
| Artikulua- operazioa | Zenbatekoa | Artikulua- operazioa | Zenbatekoa |
| 2151- op182 aro txarra | -77 000.00 | 203 (041) | 3 818.00 |
| 2182-op189 kamioiaren erostea | +77 000.00 | | |
| 2138 (041) | 1 916.00 | | |
| 2181 (041) | 1 902.00 | | |
| GASTUAK OROTARAT | 3 818.00 | SARTZEAK OROTARAT | 3 818.00 |

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **ONARTU DU** gorago aipatu kredituen berriz esleitzea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Parte hartu duten kideen kopurua: 11
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): /

4- 2022-57 DELIBEROA: ARGITERIA PUBLIKOAREN USTIAPEN ZERBITZUAN DIRU PARTAIDETZARAKO MODALITATEI BURUZKO HITZARMENAREN ONARTZEA - 7.10 NOMENKLATURA

Jaun Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dako 2021eko apirilaren 9ko deliberoaren bidez, Herriak Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuari eman zakola bere argi multzo publikoaren ustiatzeari buruzko eskumena.

Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuak proposatzen duen Argiteria Publikoaren mantentzeko zerbitzu mutualizatu hau, lau urteko merkatu baten bidez antolatua dena, 2022ko ekainaren 30ean bukatu da. Berritua izan da eta 2022ko uztailaren 1etik goiti indarrean sartu da, 4 urtez irauteko.

Hemen erantsia den hitzarmen berriaren izenpetzea beharrezkoa da.

Jaun Auzapezak hitzarmen hau irakurri du eta Herriko Kontseiluari izenpetzea proposatu dako.

Auzapezaren azalpena entzunik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez,

- **BAIMENA EMAN DAKO** Jaun Auzapezari hemen erantsia den hitzarmenaren izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Parte hartu duten kideen kopurua: 11
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOA(K): /

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA

- Bordako zubiaren birgaitze obren kontratuaren izenpetzea, 2022ko irailaren 04an
- Kredituen biramenduak, 2022ko urriaren 3an
- Germietako zubiaren birgaitze obren kontratuaren izenpetzea, 2022ko urriaren 06an
- CARRIERES ET TRAVAUX DE NAVARRE enpresaren bideetako obren merkatuaren izenpetzea, 2022ko urriaren 6an
- Luro JMren ordainsarien proposamenaren izenpetzea, 2022ko urriaren 06an

GAI OROTARIK

Euskoz ordaintzea: Kanpinean eta Coworking eremuan egiten ahalko da, 2023ko urtarrilaren 1etik goiti. Horretarako, «Coworking» zerbitzua sortuko da eta «Kanpin» zerbitzua aldatuko da.

Departamenduko Suteen eta Sokorrien Zerbitzuko erreferentearen izendatzea: Betti BIDART

Bilkuran hartuak izan diren deliberoak 54tik 57rat zenbakituak dira.

Hor ziren kideen zerrenda:

BIBES Jean Paul jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, MOCHO Frantxoja jauna, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOUSQUES Bernadette anderea, CURUTCHARRY Antton jauna

| | |
|--------------------------------|---|
| <u>Auzapezaren izenpedura:</u> | <u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u> |
|--------------------------------|---|